

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2011ko abenduaren 8a. VIII. urtea. 2.321. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Fronton jatetxeko Roberto Ruiz eta Aralar Kirolak-eko Anate Iturralde, bezeroei atea zabaltzen. G. OTAEGI

## Arlo sozialeko gastua ez duela murriztuko esan du udalak

Datozen urteetako plan ekonomikoaren berri eman dute Tolosako Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak; 2011 bost milioiko defizitarekin bukatuko dela aurreikusten da **o4**

## Patxi Zeberio, zazpigarren txapelaren bila

Binakako Erremonte Txapelketako finalerako sailkatu da elduaindarrak; Aizpurua tolosarrak finala jokatu duen erabakitzeke dago **o6**

## 'Salmenta euskaraz' ekimena eskualdeko herrietan barrena dabil

Euskara ikasten dabiltzan ikasleek, postu ibiltari bat jarri dute martxan NEL proiektuari esker **o5**

## Ibarratik Misio Taldeak Merkatu Txikia zabalduko du herrialde txiroak laguntzeko

Datorren astean material bilketa egingo dute, parrokiako lokaletan; denon laguntza eskatu dute **o6**

## Fronton jatetxea eta Aralar Kirolak, sarituak

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak urteko merkataria saria eman dio Aralar Kirolak-i, eta zerbitzu enpresari saria Fronton jatetxeari; bertako arduradunek Tolosa&Co elkartearen lana nabarmendu dute **o2**

**FUNERARIA  
VASCONGADA  
EHORZKETAK**

Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**Gertu...**  
VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BETLATOKI BULABEA

**24 H..**  
943 694 873

Industria eta Zerbitzu Enpresaren sarien XIX. edizioan, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak Aralar Kirolak denda eta Fronton jatetxea saritu ditu urteko merkatari eta zerbitzu enpresarik onenaren sariekin.

# Herriko saltokiak zabalik

Gorka Otaegi

Zabalik». Horixe irakur dezakegu Tolosako hainbat komertzio eta ostalaritza guneetako ateetan. Baina, karteltxoek ez dute establezimendu horien ordutegiak soilik hitz egiten. Filosofia batez baizik. Horregatik saritu ditu Gipuzkoako Ganberak, Merkataritza Enpresaren Sarien barruan, Aralar Kirolak eta Fronton jatetxea. Gipuzkoako urteko merkatari eta zerbitzu enpresarik onenaren sariak eman dizkiete, hurrenez hurren. Berrikuntza, ikerketa eta garapenera zabalik egoteagatik.

Sari banaketan protagonismo berezia izan zuen Tolosak. XIX. edizioan Gipuzkoa osoko merkatarien artean emandako lau sarrietatik bi herriko merkatarietzat izan baitira. Aralar Kirolak dendako arduradun Anate Iturralde eta zuzendari Roberto Ruiz ere: «Elkartea oso estrategia onak diseinatu zituen ari da, besteak beste, Alde Zaharreko komertzioa indartzeko».

## Ibilbide zabala

1979ko azaroan zabaldu zuten Anate Iturralde eta Jose Luis Areizagak Aralar Kirolak denda. Mendizale eta txirindularientzako materiala saltzen zuen 100 m<sup>2</sup>-ko denda txiki hura Gipuzkoako kirol saltokirik garrantzitsuenetakoa bihurtu da. Egun, 5 denda eta 8 langile dituzte. Malgutasuna, espezializazioa eta kreatibita-

## Merkataritza Ganberak emandako lau sarrietatik bi Tolosara etorri dira

tea dira arrakasta horren hiru giltzarriak, Iturralde azpimarratu duenez: «Gerlariaren antzera adi egon behar dugu guk: aldaketek aurrea hartzeko prest. Bestalde, merkatariak aurrera bagoaz, espezializazioari esker da. Bai bezero mota batentzat lan egiten dugulako eta baita produktu eta kirol mota batzuekin ere. Orokorrean aritzen dena motz geratzen da».

Roberto Ruizek 1993an hartu zuen udalaren Fronton jatetxeko ardura. Art-deco estiloko jangela zaharberri eta 11 langile kontratatu zituen. Tolosako babarru-

naren enbaxadore bihurturik, nazioartean zabaldu ditu jakieraren bertuteak. Azken urteotan, San Frantziskoko txurro denda eta Zerkausia kaleko Solana 4 establezimenduak martxan jarri ditu. Bitartean, ostalariaren profila aldatzen ikusi du Ruizek: «Modak, ohiturak... ez dira berdinak. Ostalariok horietara moldatu behar izan dugu. Are gehiago aldatu beharko dugu krisi garaietan lehiakorrik izateko».

## Kudeaketan adituak

Aldaketak aldaketa, biek argitu dute merkatariak betidunik behar izan dutela kudeatzailerena. «Ostalariak enpresari txikiak izan dira horretaz jabetu ez badira ere», dio Ruizek. «Negozioak ez dira enpresa ikuspuntuarekin kudeatu. Hala ere, orain argi dugu enpresariak garelak». Horregatik, positiboki baloratzen ditu erakundeetatik jasotzen dituzten formazio ikastaroak: «Sukaldari batek nekez jakin baitezake bestela enpresa bat kudeatzen».

Aralar Kirolak-ek eboluzio handia izan du 32 urte hauetan zehar. Gauzak ondo zihoazenean kotoi artean lokartu beharrean, ez dira geldirik egon: «Merkatua nora doan aztertzeke azoketara joaten, hornitzaileekin hitz egiten, hedabideak jarraitzen...». Bezeroek ere ematen dizkiete joera berriak. Roberto Ruizek arabera, bezeroei galderak egitea baino hobea da beraiek interpretatu jakitea: «Bakoitzak bere gustuak dituenez, gauza ezberdinak esaten dizkizute. Baina, beraien erreakzioak aztertuz ondorio interesgarriak lortzen dira».

## Erakundeekin kritikoa

Tolosako merkataritza atzeko beste herrietakoa baino hobeto ikusten dute sarituek. Hala ere, etorkizuneara arazoak aurreikusiten dituzte erakundeek gehiago babesten ez badituzte: «Gehiago lagundu behar gaituzte», dio Iturralde. «Ezin da dendari txiki buruz asko hitz egin eta gero baztertuta utzi». Laguntzak, nagusiki, ekonomikoak izan beharko luketela diote: zerga leunak, dirulaguntzak... Ruizek gogor salatzen ditu finantza erakundeak: «Ezinezkoa bihurtu dute negozio bat abiarazi edo birfinantzatea. Lana txukun egin dugunoi ere ez zaigu mailegurik ematen. Krisia dela eta, errugabeak ere zigortu gaituzte».

Hala ere, ez dute esperantzirik gaituzten, merkatari eta ostalari txikiak ohituta daudelako zerumugan laino beltzak ikusten.



Sarituek udal eta merkatarien ordezkarekin batera Gipuzkoako Merkataritza Ganberan. HITZA

Anate Iturralde • Aralar kirolak-eko arduraduna

## «Gune handiei irabazten ari gara»

G. Otaegi

Gipuzkoako urteko merkatariaren saria «sorpresaz» hartu du Iturralde. Dendak bizitza pertsonala mugatu diola aitortzen duen arren, dena eman diola ere baieztatzen du.

## Zuen bezeroek zertan nabaritzen dute ikerketa eta garapena?

Esaterako, salmenta moduan. Gune handietan legez, bezeroek autozerbitzua dute, baina, aholkularitzarekin. Salmenta mistoa deritzogu.

## Merkatagune handiekiko lehia irabazten ari al da dendari txikia?

Bai, jendeari gero eta gehiago



G. Otaegi

gustatzen zaio erosketak herrian bertan egitea. Merkataritza gune handiei, pixkana bada ere, borroka irabazten ari gaitza.

## Horretan lagunduko zuen merkatariak elkartzeak, ezta?

Tolosako-ekin lortutako batasunari esker Tolosa merkatalgune irekia da. Herriko merkatariak ez gara kompetentzia.

## Green Espainiako mendi kirol den-den elkartean ere bazaudete.

Lagun taldea gara, estilo eta helburu ezberdinetako kirol dendak ditugunak. Tarteka elkartu egiten gara esperientziak partekatzeko.

## Izan duzue kate handiren batean sartzeko asmorik?

Izan ginen kate bateko partaide, baina, autonomia murrizten dute. Kateak oso kate dira.

Roberto Ruiz • Fronton jatetxeko sukaldari eta zuzendaria

## «Produktuen jatorria ikertzen dugu»

G. Otaegi

Zerbitzu enpresek ahalik eta jende gehienari mesede egin behar diotela defendatzen du Ruizek. Bere ustez, hori da zerbitzu enpresarik onenaren saria jaso izanaren arrazoiak: «Bezeroek ez ezik udalak eta herriak ere jasotzen dituzte jardueraren onurak». Beti bezala, proiektu mordoak du buruan.

## Nola definituko zenuke Fronton jatetxeko sukaldaritza?

Bertako produktu tradizionalen ikertzen den sukaldaritza da. Zenbait jakiren prestakuntza teknikan aldaketak dituen.



G. Otaegi

## Sukaldaritza tradizionalen zein pisu du ikerketak eta garapenak?

Produktuen jatorria ikertzen dugu: baratza, animaliak, horni-

tzaileak, egileak... Horra jo behar da produktuak ondo ezagutu eta garatzeko. Ez ditugu elikagaiak supermerkatuan erosten. Harreman zuzena dugu ekizileekin.

## Hori da zu partaide zaituen Slow Food mugimenduen filosofia.

Bai, guk betidanik egin izan dugu hori. Nahiz eta hasieran jendeak lelotzat hartzen gintuen «modernoa» ez izateagatik.

## Proiektu berririk bai?

Plaza Zaharrak eta Zerkausia kalea izatera gastronomiko komertziala berreskuratzea nahi dugu. Bai merkataritza ekimenak sustatuz eta baita sukaldaritza ikastaroak bezalakoak eginez ere.

# LABen arabera, hitzarmena ez betetzearen ondorioz lan prekarietatea handituz doa

Adegi patronalak eraikuntza arloko hitzarmena «blokeo egoeran» duela salatu du sindikatuak

I. Garcia

LAB sindikatuak, *Sarrera debeatua lan honi ez dagokion hitzarmen orori* kanpainarekin jarraituz, abenduaren 6a Obretako Itsasketa Eguna izendatu du. Hori dela eta, LABeko sektoreko arduradunak eta delegatuak obraz obra ibili ziren herenegun «hitzarmena betetzen duten edo betetzen ez duten» obrak aztertzen.

Ekintza honekin, herrialdeko hitzarmena betetzen ez dela eta patronalak, Adegik, hitzarmena «bahiturik eta blokeo egoeran» duela salatu nahi izan dute. Era berean, salaketa konkretu bat egin nahi duen langileari bidea erraztu nahi diete, eurekin harremanetan jartzeko bidea eskainiz,



LABek kartelak itsatsi ditu obretan. HITZA

*eraikuntzakimika@labsindikatura.org* helbide elektronikoaren bitartez.

Hego Euskal Herriko herrialde bakoitzeko egoera berdintsua dela dio LABek. Gipuzkoari dagokionez hitzarmenaren negoziaketek bi urte dirautela «blokeaturik» salatzen dute, «Adegi hitzarmena ez betetzearen eta bere ondorioez hitz egitera ukatzen delako».

LAB sindikatuak egoera honen aurrean, eta patronalaren jarrrera kontuan hartuta, bi ondorio atera ditu: «Batetik, hitzarmena ez betetzearen ondorioz sortzen den prekarietatea goz doala egunez egun. Eta, bestetik, gaur egunean ditugun tresnak, Lan Ikuskaritza kasu, hitzarmena ez betetze honi aurre egiteko ez direla eraginkorrak erakusten dutela, beste behin».

# Txistulari Bandak ohiko kontzertua emango du, gaur

Sortzez Garbia eguneko emanaldi berezia udaletxeko arkupeetan egingo dute, eta zortzi obra joko dituzte

I. Garcia Tolosa

Urtero legez, Tolosako Txistulari Bandak kontzertu berezia emanango du gaur, Sortzez Garbia egunean. Udaletxeko arkupeetan izango da saioa, 13:15ean. Zuzendari lanetan Iñaki Letamendia ariko da, eta txistulariek bi laguntzaile izango dituzte emanaldirako, biak tronpeta joleak: Igor Agirre eta Xabier Zelaia.

Gutzira zortzi obra interpreta-

tuko ditu Txistulari Bandak. *Rataplan* birbilketarekin hasiko da kontzertua; egile ezezaguna duen obrari J.I. Ansorenak egindako moldaketa joko dute. Hurrengo abestia J.I. Ansorenak idatzitakoa da, *Beti nigan gertu* zortzikoa. *Martxa heraldikoak* izeneko obra joko dute jarraian, Migel Gonzalez Bastidak egina. Hurrengo obra *Goizuetan* orriekoari J.I. Ansorenak egindako moldaketa izango da. Autore berdinak *Iradi* arin arinari eginiko moldaketa joko dute ondoren. Gontzal Mendibilen *Bagare bagara* obraren txanda izango da gero. Mikel Laboaren *Txorria txorri* ez da faltako kontzertuan, eta, amaitzeko, Xabier Leteren *Habanera* obra interpretatuko dute.

## Bidegoian ◁



## SUKALDEAN, «GUSTURA»

Goiatz Bidani kultur taldeak sukaldari ikastaroa burutu berri du. «Arrakasta dezente» izan duela diote antolatzaileek: «Partaideak oso gustura jardun dira eta sukaldaritzari buruz asko ikasi dute». Kultur taldeak eskerrak luzatu dizkio Azpeitiko Jai-Alai jatetxeko sukaldariari eta baita Saiaz elkarteri ere. HITZA

## → Laburrak

### Diru laguntzak presoen senideen bisitentzako

**TOLOSA** ◁ Gipuzkoatik kanpoko kartzeletan dauden presoek beren familiakoek egiten dizkieten bisitek sortzen dituzten gastuei aurre egiteko, diru laguntza eskaerak aurkezteko epea ireki du Tolosako Udalak. Epe hori hilaren 30ean bukatuko da.

### Orfeoien Eguberrietako kontzertua, hilaren 17an

**TOLOSA** ◁ Tolosako Orfeoien Eguberrietako kontzertua eskainiko du hilaren 17an, 20:30ean, Leidor antzokian. Tolosako Orfeoien lehenbiziko zatian Mozart-en *Koronazio Meza* interpretatuko du eta ondoren Tolosako Eskolaniarekin batera gabon kantak eskainiko ditu. Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, Iruñeko Concerto orkestrarekin batera jardungo dute. Sarrerak orfeoizaleen bidez, Leidor antzokiaren leihatilan edota Orfeoien Nafarroa etorbidean duen egoitzan eskura daitezke. Sarreraren prezioa 12 euroko da. Bazkideek doan izango dute.

### Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailean, diru laguntzak eskatzeko epeak

Erredakzioa Tolosa

Zabalik da dagoeneko, Tolosan ordezkaritza duten eta Tolosan bertan ekintzak egiten dituzten GKEentzako diru laguntzak eskatzeko epea. Hain justu, hilaren 15eko 13:00etan amaitzen da. Horrez gain, Tolosako osasun eta gizarte zerbitzuetako alorrean lan egiten duten talde eta elkartei hilaren 17an, 13:00etan, amaitzen zaie diru laguntzak eskatzeko epea.


Udaleko Gizarte Zerbitzu eta Osasun sailean aurkeztu behar dira eskaerak, asteleheneetik ostiralera (ostegunetan izan ezik), 10:00ak eta 13:00ak bitartean. Diru laguntza horiek arautzen dituzten oinarri eta eskaera orriak leku hauetan daude: [www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net) webgunean eta udaletxeko Informazio eta Erregistro bulegoan. Epez kanpo aurkezturiko eskaerak edota ezarritako eredutik kanpo gelditzen direnak, ez direla kontuan hartuko zehaztu du sailak.

### 100 lagunekin handituko da Usabalgo bazkide zerrenda

Erredakzioa Tolosa

Tolosako udal gobernuak Usabal kirolegiko bazkide zerrenda 100 lagun berrirekin handitzea erabaki du, aho batez, Tolosa Lantzen-en bileran gaia aztertu eta gero. Erabakia justifikatzen duten arrazoi nagusiak aipatzerakoan, erabilpen neurketek egungo instalazioetan kopuru hori hartzeko arazorik ez dagoela erakusten dutela adierazi du udal gobernuak. Gainera, udalak «irtenbide bat eman nahi dio itxaron zerrendetan aspaldi honetan eman den blokeoari». Aldi berean, itxaron zerrenda horren gaurkotatzea aztertu nahi du udalak.

Erabakia hartzerakoan, udal gobernuak «oso kontuan» izan du Berazubiren birmoldaketa, «epe laburrera hasiko dena». Berritze horrek «zerbitzuen eskaintza zabaltzea ahalbideratuko du eta zerbitzu osagarriak eskainiko ditu». Edozein kasutan, udalak bazkide kopuru berri horren eraginaren jarraipena egingo du.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibai Iriarte eta Lore Agirre, plan ekonomikoaren aurkezpenean. I. GARCIA

# Udalak arlo sozialeko gastua mantenduko duela esan du

Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak datozen urteetarako plan ekonomikoaren aurkeztu berri dute

Imanol Garcia

Tolosako Udalak datozen urteetarako plan ekonomikoaren berri eman zuen batzar aretoan egin dako bilera irekian. Ibai Iriarte alkateak eta Lore Agirre alkateordeak eman zituzten azalpenak, eta gastu sozialeko mantendu egingo dela, eta beraz, arlo horretan murrizketarik ez dela izango zehaztu zuten. «Gastu sozialeko ez da bakarrik gizarte zerbitzuak bideratzen den dirua, kultura eta esan zuen Iriartek.

Aurtengo aurrekontuaren aurreikuspena egin du udalak: 5 milioi euro inguruko defizita izango da. Datozen lau urteetarako aurrekontuek ere ez dute emaitza positiborik emango: 2012an ia 4 milioiko defizita espero da, eta 2013tik 2015era milioi inguruko urte bakoitzeko. Horrek diruzaintzako gerakina, hau da, udalaren *itsulapikoa*, zerbaki gorrietan utziko luke. Zehazki, 2010 urte bukaeran zeuden 8,5 milioietatik, 2015eko amaieran egongo liritekeen ia -3,5 milioietara.

## ↓ Plan ekonomikoaren zerbakitan (eurotan)

	2010 (likidazioa)	2011 (aurreikus. likidazioa)	2012 (planekon.)	2013 (planekon.)	2014 (planekon.)	2015 (planekon.)
<b>Sarrerak</b>	26.857.813	23.901.886	21.400.000	21.844.200	22.301.505	22.766.914
<b>Gastuak</b>	28.647.814	28.943.910	25.327.405	22.875.486	23.281.524	23.725.866
<b>Aurrekontu emaitza</b>	-1.790.000	-5.042.024	-3.927.405	-1.031.286	-980.019	-958.952
<b>Diruzaintzako gerakina</b>	8.496.655	3.454.631	-472.773	-1.504.059	-2.484.078	-3.443.030

lioi euro inguruko defizita izango da. Datozen lau urteetarako aurrekontuek ere ez dute emaitza positiborik emango: 2012an ia 4 milioiko defizita espero da, eta 2013tik 2015era milioi inguruko urte bakoitzeko. Horrek diruzaintzako gerakina, hau da, udalaren *itsulapikoa*, zerbaki gorrietan utziko luke. Zehazki, 2010 urte bukaeran zeuden 8,5 milioietatik, 2015eko amaieran egongo liritekeen ia -3,5 milioietara.

Aurreikuspen horiei buelta ematea da udalaren helburua. Horrela, alde batetik ez da dirurik

bideratuko inbertsioetara, ez bada diru laguntzarik lortzen horientzako. Bestetik, gastu arruntetan murrizketak egiteko asmoa dute, kale zein eraikinen garbiketa gastuan, hain zuzen. Urte hauetako aurrekontuak baldintzatzen dituen Elosegi parkeko desjabetzearen ordainketa dela zehaztu du udalak.

### «Indarberrituta» ateratzea

Plan ekonomikoaren datuak eman aurretik, Iriartek egungo egoera ekonomikoa izan zuen hizpide. «Mundua krisi ekonomikoa

bizitzen ari da eta horrek guztiei eragiten digu», esan zuen alkateak. «Perspektibaz lan egin behar da, hankak lurrean ditugula, eta plan ekonomikoak horri erantzun nahi dio». Planari buruzko azalpenak herritarren aurrean ematea, «udalaren gardentasunaren seinale» dela esan zuen. Bestalde, aurtengo «denbora faltagatik» ez badira egin, datozen urteetarako aurrekontu parte hartzaileak egiteko konpromisoa hartzen dutela gaineratu zuen. «Egoera okerra» bizi dugula esan zuen, eta horrelako egoera bate-

an «denon artean aldaketa» egin beharra dagoela gaineratu zuen, «indarberrituta ateratzeko».

### Elosegi parkea

Bileran herritarren aldetik gehien aipatu zen gaia Elosegi parkearena izan zen. Epaitegie-tan dago desjabetzearen auzia, baina udala eta parkearen jabeak akordio batetara iritsi berri dira, eta horrek auzia ixtea ekarriko luke. Akordio horren ondorioz udalak 8,5 milioi ordaindu behar ditu. Aurretik, 2006an, milioi erdi ordaindu zituen udalak eta orain beste zortzi milioi falta dira. Datozen urteetako aurrekontuak baldintzatuko ditu ordainketa horrek. Izan ere, aurtengo beste milioi euro bat jarri behar du udalak eta datorren urtean hiru milioi ordaindu behar ditu. Hortik aurrera, beste lau urteetan milioi bana ordaindu behar da.

Jabeekin lortutako akordioa positibotzat jo zuen alkateak: «Epaitegiek orain arte erabakitakoaren arabera, udalak jabeen eman beharrekoa 9,6 milioi euro ziren, eta gainera dena kolpera ordaindu beharko litzateke. Akordioarekin, milioi euro bat gutxiago jarri beharko da eta urte gehiagotan ordaindu daitezke».

Plan ekonomikoaren ondorioetako bat inbertsioak egiteko ahalmena gutxitu dela da. «Finantziarioa ez daukaten inbertsio guztiak atzeratu egin beharko dira, beste baliabide batzuk edo handiagoak lortu arte», zehaztu zuten udalako arduradunek. Diru laguntzak lortu beharko direla esan zuen Iriartek, eta inbertsioak egiteko ahalmena izanez gero, azpiegituren alorrean Berazubiko estadioa eraberritzea dago zere-rrandan lehena.

Udalak zorpetzeko beharra ikusten badu, adostasun politiko handi bat izatea beharrezkoa ikusten du. Horretara iritsi baino lehen, dirua aurrezteko zenbait modu aipatu zituen Lore Agirrek. Hain justu kale garbiketaren (urtero 1,3 milioi euro) eta eraikinen garbiketaren (urtero 0,5 milioi euro) gastuak murriztea aurreikusten du udalak.

Plan ekonomikoaren datu zehatzagoak jakin nahi dituenak, txostena udalaren webgunean zintzilikatuta dagoela azaldu zuten udal arduradunek.



## SHUYANA

EDERGINTZA

**ESKAINITZA BEREZIA**  
Abenduaren 1etik 15era  
**%20eko deskontua**  
kosmetiko guztietan



Eskolapioetako Lorategiak, 3 • 1A  
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89

Shuyana kosmetiko denda  
TOLOSA • Korreko kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68

# Euskara ikasten ari diren etorkinek, euskara ardatz duen saltokia zabaldu dute

Gabonetako eta Eguberrietako opariak 'Salmenta euskaraz' postu ibiltarian aurki daitezke

## Asier Imaz

Banaiz Bagara Elkarateak euskara etorkinentzat eskuragarri jartzeko helburua du. Horretarako, *Salmenta euskaraz* izeneko postu ibiltaria sortu du, eskualdeko azoka eta txokoetan jartzeko. Bertan, Gabonetarako edo Eguberrietarako opariak erosteko aukera bikaina eskaintzen dute. Besteak beste, bertan Katxiporreta eta Irrien Lagunakeko azken produktuak egongo dira: azken CDak eta DVDak, aldizkariak, arropa eta Pupu eta Lore panpinak. Berria eta Euskal Herriko Plazaren produktuak ere jarriko dituzte postuan, baita Kontseiluak sortutako arropa ere.

Banaiz Bagara Elkarateak, bezaz, hainbat eragileren laguntza izan du, NEL proiektuaren barruan kokatzen den *Salmenta euskaraz* ekimena aurrera ateratzeko. Postuan egongo den lantaldea, aldiz, sei euskara ikasle eta lau monitore euskaldunek osatuko dute.



'Salmenta euskaraz' lantaldearen postua. HITZA

## NEL proiektua

Euskara ikasteko zailtasunak dituzten pertsonen, eta batez ere etorkinei, lanaren bitartez euskara ikasteko eta euskaraz lan egiteko aukera eman nahi die NEL proiektuak.

Proiektu pilotu honen arlo bat da *Salmenta euskaraz* lantaldea. 2011ko irailetik aurrera, Tolosako kultur etxean ekimen honen inguruko ikastaroa ematen hasi ziren, eta urrian irten ziren lehen aldiz kalera produktuak saltzera. Postua Tolosaldean jarri ohi dute, eta noizean behin beste herriren batean. Horretarako aitzakia politikak dira azoka berezi edo kultur ekitaldiak.

*Salmenta euskaraz* lantaldeko kideek, herritar guztiak eta bereziki, euskara eta euskal kulturaren inguruan lan egiten duen eragile oro gonbidatu dituzte euren postura. Denak batera, «Gabonetako giro alaiak eta euskalduna plazan jartzeko, eta gure proiektuari laguntzeko».

Tolosan eta Villabonan postua astero jartzen dute, azoka egunean. Tolosan beste data bat ere finkatu dute, izan ere, hilaren 17an, Mundialak kantu taldearen entseguan egongo dira, Laskorain Ikastolan, 17:00etatik aurrera. Horrez gain, eskualde guztira zabaltea ere gustatuko litzaieke euren euskarazko salmena gunea.

## Danenako pultsulariak laugarren gelditu dira taldekakoan

Erredakzioa Villabona-Zizurkil

Azaroaren 26an, Madrilen, Kluben arteko Espainako Txapelketa jokatu zen, eta bertan Danok Danena Halterofilia Taldeak 4. postua lortu zuen. Jon Ander Iriarte, Igor Sasiain, Ekaitz Kortajarena, Jon Sasiain, Francisco Cruz eta Teddy Martinezek osatu zuten taldea. Txapelketa 12 taldek hartu zuten parte, eta ETH A izan zen onena.

Danok Danena taldeko pultsularien hurrengo bi txapelketak etxean jokatuko ditu: Villabonan eta Zizurkil.

Hilaren 10ean, etzi, Olaederra Kiroldegian IV. Kadete eta Promesen Ligan lehiatuko dira, 16:30etik aurrera; eta hilaren 17an Zizurkilgo Intxaur Pilotalekuan, Eguberrietako Trofeoak jokatuko dira 18:00etatik aurrera. Danenatik herritarrek kirol hau ezagutzera gonbidatu dituzte.

## VI. Poltsiko Antzerki Lehiaketan izena emateko aukera dago

Erredakzioa Aduna

Asvineneako VI. Poltsiko Antzerki Lehiaketan parte hartu nahi duenak, izena emateko aukera zabalik dauka 2012ko martxoaren 15a bitarte. Horretarako Asvinenearekin jarri behar du harremanetan, 665 73 80 81 zenbakira deituta, edo [poltsiko2012@gmail.com](mailto:poltsiko2012@gmail.com) helbidera idatzita.

Lehiaketa hurrengo urteko apirilaren 20an hasi, eta ekainaren 1ean amaituko da.

Parte hartzaileek pieza motzak egin beharko dituzte, 8 minututik 15 minutu bitartekoak. Edozeinek hartu dezake parte, profesional zein amateurrek. Epaimahai profesional batek aukeratzeko duen irabazleak, 1.000 euroko saria jasoko du; publikoak aukeratzeko duen pieza onenak 500 euroko saria izango du. Asvineneatik denei gerturatzeko eskatu die, leku berezi hau ezagutzeko.

## Amasa-Villabona



## 'ARI DU' DVD-AN SALGAI

Oinkari Dantza Taldeak *Ari du* bere azken lana DVD formatoan kaleratu du. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian egin zuten aurkezpena, eta jada salgai aurkitzen da ohiko lekuetan; Villabonan Amasa kafetegian, Kixubi okindegian, Larrea okindegian, Peridotan, Itzalpe tabernan eta Iru Aldetan. Gaur amaitzen den Durango Azokan ere izango da eskuratzeko aukera, BAGA-BIGAREN postuan. HITZA

## → Laburrak

### Kirolari omendua proposatzeko aukera

**ZIZURKIL** ▶ Kirol batzordeak antolatuta hilaren 16an Zizurkilgo kirolariari omenaldia egingo zaie. Herritarrek bertan egongo diren kirolariak proposatzeko aukera dute, Kirol batzordearekin harremanetan jarrita.

### Graffiti ikastaroan izena emateko aukera

**KULTURA** ▶ Villabonako Katea Etxeak eta Zizurkilgo Gaztezu- lok graffiti ikastaroa antolatu dute hilaren 27an, Zizurkil. DBH 2, 3 eta 4ko ikasleei zuzenduriko ikastaroa da. 11:00etatik 13:00etara izango da, eta ordu erdiko lau txanda egingo dira, txanda bakoitzean gehienez 16 pertsona onartuko direlarik. Izena emateko aukera bi Gaztelekuetan jarri dute.

### 'Tintin y el secreto del unicornio' Gurea aretoan

**AMASA-VILLABONA** ▶ Gurea aretoko zine karteldegira Tintin iritsiko da asteburuan eta astelehenean. Bere azken abenturak azaltzen dituen pelikula eskainiko dute Villabonan: *Tintin y el secreto del unicornio* filma, hain zuzen ere. Larunbatean, 18:30ean eta 22:15ean; igandean, 17:00etan eta 19:30ean eta astelehenean 21:30ean dira emanaldiak.



## PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)



Zeberio II.ak eta Ionek Matxin III.a eta Urrutiaren aurka jokaturako finalaurrekoaren une bat. EUSKAL JAI BERRI

## «Indarrez eta animoz beterik» jokaturako du Binakako finala Zeberioiok

Elduaindarraren zortzigarren finala izango da, eta zazpigarren txapela lortzeko lehiaturako da

### Iñigo Terradillos

Patxi Zeberio erremontista elduaindarrak Binakako Erremonte Txapelketako finala jokatzeko sailkatu da, Matxin III-Urrutia I.a bikotearen aurka erraz gailendu eta gero, herenegun. Zortzigarren finala jokaturako da, eta zazpigarren txapela lortzen saiatuko da. Berak eta Ionek osaturiko bikoa noren aurka ariko den, ordea, erabakitzeko dago oraindik. Hain zuzen ere, gaur arratsaldean erabaki liteke, Ezkurra-Aizpurua II.a eta Juaristi-Lizasoren arteko partidari.

Elduaindarrak «ilusioz eta gogotsu» aurkitzen da finalaren aurrerari, eta finalerako sailkatzeak indarrez eta animoz bete duela dio. Era berean, «irrikaz» dago arerio nor izango duen jakiteko. Zazpigarren txapela janzteak «poz handia» emango liokeela dio, batez ere bere adinean «gainerako erremontisten mailan aritzeko gai dela erakutsiko lukeelako».

### Finalerako aurkariak

Zeberioaren ustetan Doneztebeko Ezkurra eta Tolosako Aizpurua II.ak osaturiko bikotea «oso sendoa» da, eta finalerako beste txartela beraiek lortzea litzateke «normalena». Baina, lehenengo finalaurrekoan gertatu zenaren ondoren, ez du faborito argirik. «Juaristi-Lizasoren aurkako partida erraz galdu zuten, beraz, irabazleak animoz beterik joango dira bigarren finalaurrekora; ai-

tzitik, Ezkurra eta Aizpuruari, maldan gora jarri zaie txapelketa, izan ere, bi partidak jarraian irabazi beharko litzateke finala jokatu nahi badute. Beraz, bi bikoteetatik edozein sailkatu daiteke finalerako», azaldu du elduaindarrak.

Binakako Erremonte Txapelketaren ezaugarrietako bat, hain zuzen, desoreka izaten ari dela dio Zeberioiok: «Itxura batean, bikote orekatuak osatu zituztela zirudien, eta maila bertsuko partidak ikusiko genituela uste zen, baina hasierako partidak igaro ostean, eta batez ere finalaurrekoetan, desoreka handia nabaritu da, agian guztiek ez dutelako eman esperotako maila».

Bada, gaur argitu daitezke zailtza guztiak, Galarretan, 16:00etan hasiko den jaialdiaren barruan jokaturako finalaurreko partidari.

## Merkatu Txikirako material bilketa, astelehenetik

Ibarrik Misio Taldeak datorren astelehenetik ostiralera bilduko du materiala, ondoren merkaturatu saltzeko

### I. Terradillos Ibarra

Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, abenduaren 17tik 23ra Merkaturatu Txikia izango da Ibarrik Parrokiko lokaletan. Urtero abian jartzen duten ekimenak Misio Taldeak herrialde txiroetan dituen proiektuetarako dirua biltzea izaten du helburua. Bada, Merkaturatu Txikia zabaldu aurretik, material bilketa egingo dute elkarteko kideek, eta horretarako herritar ororen parte hartzea eskatu dute.

Datorren astelehenean, hilaren 12an hasiko dira materiala biltzen, eta ostiralera bitarte egongo dira. Materiala utzi nahi dutenek parrokiko lokaletara eraman beharko dute, 17:00etatik 20:30ak bitarteko ordutegian.

### Ekuador, Honduras eta India

Urteko sasoi honetan, Eguberri jaiaren inguruan ireki ohi du Iba-

rratik Misio Taldeak Merkaturatu Txikia. Ekimen honen helburua Ekuador, Honduras, eta Indian garatzen dituzten proiektuetarako dirua lortzea izaten da.

Merkaturatu goizez nahiz arratsaldean egongo da zabalik. Astelehenetik larunbatera, goizez 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 20:30era, eta igandetan, 10:00etatik 14:00etara. San Bartolome Plazan elkartek dituen Parrokiko Lokaletan jartzen dute askotariko materialak osaturiko merkaturatu.

Ibarrik Misio Taldeak materiala ematen duten norbanako eta dendariak, eta material hori erosten duten herritarrek esker-tu nahi dituzte, «hiru misioetako sendien izenean, horrela posible egiten baitugu proiektuak aurrera ateratzea».

Elkarteari era batera edo bestera lagundu nahi izatera, esaterako Merkaturatu Txikian bertan egonez, elkarteko kideekin jarri behar da harremanetan, 650 416 949 (Mariani) edo 678 844 539 (Juanmari) telefono zebakietara deituta. Bestalde, elkarteari inguruko nondik norakoak [www.ibarrik.org](http://www.ibarrik.org) webgunean ezagutu daitezke.



Parrokiko lokaletan egongo da materiala salgai. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

**Irudia** ◊ Ibarra**ALURREN «ARRAKASTA» IPARRALDEAN**

Alurr dantza taldea Arbona (Lapurdi) herrian aritu zen iragan igandean dantza saioa eskaintzen. Alurrek harreman estua du Ipar Euskal Herriko dantza taldeekin, eta maiz gonbidatzen dituzte ibartarrak bertako jaialdietan parte hartzera. Kasu honetan, urtero ospatzen duten gaixotasun guztiei aurre egiteko diru bilketa lortzeko jaialdirako deitu zituzten Alurreko kideak. Arbonako dantza taldea eta Alurr dantza taldea herriko pilota-

lekuan aritu ziren, ikus-entzule ugariaren aurrean, pilotalekua jendez beterik baitzegoen. Alurr taldeko 20 dantzariak Sua eta Oinazek ikuskizunaren arteko nahasketa bat egin zuten. Ordubeteko iraupena izan zuen saioa Alurr taldeko irakasle eta koreografo lanak egiten dituen Aiert Beobidek prestatu zuen. «Arrakasta handia» izan zuen emanaldiak, txalo zaparrada jaso zutelarik. HITZA

**Muñagorri eskolak antolatuta, Elkartasun Azoka egingo dute**

Hilaren 16tik 18ra izango da, eta dirua Etiopiar bideratuko dute; hilaren 12tik 15era, material bilketa

**Iñigo Terradillos** Berastegi

Aurten ere, Muñagorri eskolako Ingurumen Batzordeak Elkartasun Azoka antolatuta du abenduko hirugarren astebururako. Antolatzaileek diotenaren arabera, «bigarren eskuko materialen azoka honen helburua soberan edo

erabiltzen ez ditugun gauzei etekina atera eta erabilpen berri bat ematea da».

Azokaren aurreko egunetan materiala jasoko dute. Arropa, jostailuak, liburuak edota altzariak utzi daitezke. Muñagorri eskolakoei erabili daitezkeen eta txukun dauden gauzak izatea eskatzen dute. Datorren astelehenean ostegunera, hau da, hilaren 12tik 15era jasoko da materiala, aparkaleku azpiko lokalean 16:30etik 18:30era.

Ekarzen diren gauzei prezio sinboliko bat jarriko diete antolatzaileek.

**Dirua, Etiopiar**

Abenduaren 16, 17 eta 18an jarriko dute bildutako materiala salgai. Jasotzen duten dirua Etiopiar Wukro herrira bidaliko dute, urtero bezala.



lazko azokako irudia. EZEIZA

**Euskararen erabilpena arautzen duen Foru Agindua gaitzetsi dute**

Elebiduna den komunitatearekiko errespetuz jokatzeko eskatu du STEE-EILAS sindikatuak

**Erredakzioa**

STEE-EILAS sindikatuak erabateko gaitzespena adierazi dio Nafarroako Hezkuntza Departa-

mentuan euskararen erabilpena arautzen duen Foru Aginduari. Agindu horren arabera, Hezkuntza Departamentuko unitate organikoek formula elebiduna erabiltzen dutenean euskarri ezberdinak erabiliko dituzte euskara eta gaztelaniarako.

Sindikatuaren ustetan, «UPN-PSN alderdiek onartutako Foru Agindu honek bere egiten du UPNko aurreko kontseilariak hartutako erabakia». Aginduari

jarraiki, beraz, inprimaki, zigilu, jakinarazpen, publikazio edota publizitatea bi hizkuntzetan batera egitea debekatuta dago aurrerantz, eta egiten direnak bi-koizturik egingo dira.

Bada, Nafarroako Gobernuari Agindu Foral hau baztertzeko eskatzen diote, eta nafarrekin duen komunikabideetan euskarri bakanrean agertzeko bi hizkuntzak, «elebiduna den komunitatearekiko errespetuagatik».

**Etxarri da Plazaola partzuergoko lehendakari berria**

Azaroaren 28an egin zen partzuergo turistikoko batzar orokorrean izendatu zuten leitzarra

**I. Terradillos** Leitza

Aitor Etxarri Leitza udalbatza zinegotzia, izendatu dute Plazaola partzuergo turistikoko presidentea berri. Iragan azaroaren 28an eginiko batzarrean egin zen hautaketa.

Lekunberriko antzinako Geltokian egin zuten Plazaola partzuergo turistikoko batzar orokorra, eta bertan landu ziren puntuetako bat partzuergo turistikoaren lehendakari berriaren hautaketarena zen. Bada, kargua hautagai bakarrari egokitu zitzaion, Leitza udalbatza den Aitor Etxarri, alegia. Aipa-

tzekoa da kargu hau tokiko erakundeetako ordezkariak soilik bete dezaketela.

Plazaolako kide diren udalbatza erakundeetako ordezkari gehienak izan ziren batzarrean, Leitza, Larraun, Lekunberri eta Aresokoak, hain zuzen. 2012an Plazaolako kide berria izango den Imotzeko udalbatza ordezkariak ere parte hartu zuten, eta baita ostalaritza, landa etxe, artisauek eta askotariko zerbitzuak elkarrekin profesionalak ordezkariak ere.

Batzar horretan beste hainbat gai landu ziren. Azken akta onartu zen, 2010eko Kudeaketa Txostena eta Kontuen Itxiera onetsi ziren; 2011ko aurrekontua eta 2012ko kuotak ere onartu ziren, Imotzeko udalbatza kide berriekin onartu zen eta Partzuergo eta orokorrean zonaldeko promozio tresna izango den ikus-entzunezko berria aurkeztu zen.

**→ Laburrak****Kiroldegian baja ematea, urtarilaren 15a bitarte**

**IBARRA** ▶ Belabieta Udal Kiroldegiko bazkide guztiei jakinarazi nahi diete, kiroldegiko bazkide izateari uzteko epea 2012ko urtarilaren 15ean amaituko dela. Kiroldegitik adierazi dutenez, interesdunek kiroldegiko bulegotik pasa beharko dute bazkide txartelarekin eta eskabidea sinatu.

**'No habra paz para los malvados' filma, bihar**

**LEITZA** ▶ Enrike Urbizuren *No habra paz para los malvados* filma izango da bihar ikusgai, 22:30ean, eta igandean, 19:30ean.

**Ludotekan izena emateko azken eguna, hilaren 15a**

**LEABURU** ▶ Gabonetako ludotekarako izena eman daiteke abenduaren 15a bitarte. Abenduaren 16tik urtarilaren 5era izango da zerbitzua martxan.

**Herri Urratseko materiala eskuratzeko aukera, bihar, plazan**

10:00etatik 13:00etara bitarte egongo dira neguko materiala saltzen Azkaingo ikastolako gurasoak

**Erredakzioa** Leitza

Azkaingo ikastolako gurasoak Leitza izango dira bihar, Herri Urratseko materiala saltzen. Hain zuzen ere, plazan izango dira, merkatua dagoen unean,

hau da, 10:00etatik 13:00etara bitarte.

Seaskak Iparraldeko ikastolen elkarrekin garaian garaiko Herri Urratseko jantziak jarri ohi ditu salgai, eta orain neguko arropa ari dira saltzen. Haur, gazte, emakumezko nahiz gizonezkoentzako niki, jertse, beroki eta eurita-koetan aukera polita izango da, jarriko duten postuan.

Datorren urteko Herri Urrats Iparraldeko ikastolen festa, maiatzaren 13an izango da, *Elkartuz Zabaldu* lelopean.

